



ALKOHOLISMOAK BADU **IRTENBIDEA**

Alkoholiko Anonimoen Tolosako Uzturre taldeak hitzaldia antolatu du gaur Alegian gaixotasun horri buruz **5**

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-01-14**

VIII URTEA 1.902. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

IKER SARRIEGI PEIO OLANOREN ABOKATUA

«Epaileari deklarazio poliziala behartutakoa zela esan zion»

LIZARTZA Tolosaldeko Ezker Abertzaleak manifestazioa egingo du bihar Peio Olanoren askatasuna eskatzeko

TORTURAK «Lurrean etzanda jartzen zuten manta batean bilduta, ondoren batek buruan poltsa jartzen zion» **7**



Julian Gaiarre kale inguruan obra ugari egin dituzte; baranda berriak jarri dituzte, lurrak konpondu dituzte... I. TERRADILLOS

JULIAN GAIARRE GUNEA BERRITU DU UDALAK

IBARRA laz Espainiako Gobernuak emandako diru laguntza, 700.000 euro, inbertitu ditu zonaldea «irisgarritasun baldintzetara» egokitzeko **6**

Bi eskualdeetako hiru eskolek hartuko dute parte VII. Berria Txapelketan

PILOTA Bihar hasiko da urtetik urtera indartzen ari den lehiaketa; Aurrera Saiaz, Aurrera eta Zazpi Iturriko pilotariak izango dira bertan **4**

Garapen soziala eta ekonomikoa II. Ekintza Planean

TOLOSA 2006. urtean abiarazitako prozesu «luze eta parte-hartzailearen» ondotik osatu dute Udalbatzak berriki onartu duen egitasmoa **3**

EUROPAKO MOZORRO DENDARIK HANDIENA
(1.000 m²)
Elbarrena Industrialdea
Tel.: 943 888 232 Zaldibia

Jaiak

IHAUTERIAK 2010
www.JIAKDENDA.com

Kultura » Bihar 20:30ean ikusteko aukera izango da Vaiven taldearen lana; bertan istorio komiko eta dramatikoak kontatzen dira.

ERREDAKZIOA

Inguruko emakume zein gizon guztiak gonbidatuta daude emakume ikusezinen klubera.

Leidor antzokian dute hitzordua bihar, 20:30ean. Izan ere, Vaiven konpainiakoak datoz beraien azken lana aurkeztera, *El club de las mujeres invisibles* antzezlan, hain zuzen.

Emakumeen ahotsa

Metaforikoki edo sinbolikoki ahotza eman nahi izan diote hainbat emakumeri *El club de las mujeres invisibles* antzezlanean.

Obrak, ordea, ez du emakumeen biktimismoaz hitz egiten, ezta gizezkoen erruduntasunaz ere. Desamodioaz, ama izan ez nahi duen emakumeaz, tratatu txarrak sufritzen dituen emakumeaz, jenu baten itzalpean dagoen emakumeaz, menopausiaz, sexu jazarpenaz... hitz egiten dute lanean.

50eko hamarkadan klub batean abeslari baten eta pianista baten artean sortutako maitsun istorio ederrean dago girotuta Vaiven Producciones-ek dakarren ikuskizuna. Ainara Ortega izango da abeslariaren papera beteko duena eta Iñaki Salvador, berriz, pianistarena egingo duena.

Fernando Bernues zuzendariak

Emakume ikusezinen klubeko istorioak, Leidorren



Dorleta Urretbizkaia, Iñaki Salvador, Vito Rogado, Ana Pimenta eta Ainara Ortega izango dira eszenatokia. HITZA

sortu du hainbat istorioekin osatutako obra. «Aizpea Goenaga, Oscar Terol, Arantxa Iturbe edo Jordi Galceranek sortutako testuekin egin dugu ikuskizuna. Ez da *sketch* desberdinekin osatutako istorioa, ondo lotu ditugu pertsonaia guzti biziaren», dio Bernuesek.

Musikak paper garrantzitsua du *El club de las mujeres invisibles* lanean: «Ez da musikal bat, baina musika pertsonaia bat gehiago da, *El pianista del oceano* edo *Paradero desconocido* antzezlanetan egin genuen bezala. Jazz klub bat da an-

tzezlan honetan sortu duguna eta estilo honetako hainbat klasiko izango dira entzungai, baita nire konposizioak ere».

Musika, drama eta komedia

Drama eta komedia koktela zerbitzatuko du Vaiven Producciones-ek Leidorren. Bernuesek drama modu naturalean egin dutela azaldu du: «Momentu tristeak badaude, baina ez dira puztutakoak». Aktoreek hainbat rol antzeztuko dituzte.

Antzezlan ikusteko sarrerak

www.kutxa.net webgunean, Servikutxan, Telekutxan eta Leidorrenko leihatilan (zine orduetegiaren) erosi daitezke.

Gainera, Udalak ateratako eskaintza bereziarekin sarrera merkeago eskuratu daiteke. Bonu bereziei esker lau ikuskizunetara joan gero, %20ko deskontua egingo zaio ikusleari, emanaldi bakoitzean. Honenbestez, 40 euroren truke lau saio ikusi ahal izango dira, artean biharkoa. Dena den, eskaintza berezi hau ostiralera arte bakarrik egingo da jarrita.

Gaur Zine Forumean, 'Katyn' film poloniarra ikusteko aukera

Kultura » Gaurtik astelehenera bitartean zine emanaldi ugari izango da Leidorren; arratsalde eta gauze izango dira saioak.

ERREDAKZIOA

Zine emanaldi ugari izango dira aste honetan Leidorren. Hasteko, ohi bezala, gaur Zine Foruma izango da. 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak. Andrzej Wajda zuzendariaren *Katyn* filma ikusteko aukera izango da jatorrizko bertsi-



'Katyn' film poloniarra ikusgai izango da bihar, Leidorren. HITZA

@ Irudietan. Urtea zuriz jantzita hasi dute eskualdeko herri gehienek. Elurrak paisaia zoragarriak utzi ditu 2010eko lehen-dabiziko egun hauetan. Bidali tolosaldeko@hitza.info helbidera egun hauetan eskualdeko txoko ezberdinetan zuzendutako argazkiak. Hauekin ondoren, bilduma bat osatuko da eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren webgunean ikusgai egingo da.

www.tolosaldeko@hitza.info

an. Artur Zmijewski, Maja Ostaszewska eta Andrzej Chyra dira, besteak beste, poloniar film honen protagonistak.

Atzerriko film onenaren Oscar sarirako izendatua izan zen. Bertan, II. Mundu Gerran Europako herrialdean egindako sarraskiak kontatzen dira. 1940an, Katynen Poloniako 22.000 ofizial hil zituzten. Wajda zuzendariaren aita zen horietako bat. Hori dela eta, gertutik bizitu zuen egoera.

Larunbat arratsaldean, haurrentzako emanaldi bat izango da, eta igandean beste bat. Bietan ere, 17:00etatik aurrera, *Alvin 2* filma ikusteko aukera izango da Leidorren. Bestetik, etzi, komedia eta beldurrezko filmeen artean kokatzen den *Bienvenido a Zombieland* proiektatuko dute. Lehen emanaldia 19:30ean izango da, eta bigarrena, 22:30ean. Azkenik, igandean, duela gutxi estreinatua den, *No es tan facil* filma ikusteko aukera izango da. Maryl Streep da komedia erromantiko honen protagonista. Bi saio egingo dira, lehendabizikoa 19:30ean, eta bigarrena, 22:00etan.

Astelehenean, Zine Forum berezia

Astelehenean, Zine Forum berezia izango da. Hala, dohainik ikusi ahal izango da *To shoot an elephant* lana. Gainera, oraingo honetan, azpitu luak euskaraz izango ditu. Ostegunetan izaten denean bezala, 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak. Filma Israel Gaza erasotu zuenean bertan egondako baten testigantza oinarrituta dago. 2008ko abenduaren 27an *Cast lead* operazioan 21 egunez «elefantei tiroka» aritu ziren. Irudi arriskutsuak, harri garriak eta aldi berean zikinak biltzen ditu lanak.

Laburrak

Azpillagaren lanak ikusteko aukera etzi arte

KULTURA » Mikel Aspillaga margolari donostiarraren 2005-08 eta atzerako begirada izeneko erakusketa ikusgai dago Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era dago zabalik. Etzi arte egingo da jarrita artista gaztearen bilduma eta honenbestez, oraindik joan ez denak, gaur eta bihar bakarrik izango du horretarako aukera.

Errusiako haurrak hartzeko familien bila dabil Bikarte

GIZARTEA » Udan familiek Errusiako haurrak hartzeko deialdia luzatzen du Bikarte elkarteak. Hori dela eta, gai honen inguruko informazioa zabalteko asmoz, bilera informatiboa antolatuko dute biharko. Hau 19:30ean izango da Tolosako Triangulon dagoen Kultur Etxean. Bestalde, egitasmo honekin lotuta, erakusketa bat jarriko dute bihar. Hau hilaren 20ra arte egingo da zabalik. Haur horien osasunean eragiten duten bi arazo nagusi nabarmentzen dituzte Bikarte elkarteak: Alde batetik, muturreko klima (oso hotza), eta beste-rik, kutsadura.

Telefonoak

Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarralde. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Garutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leiztaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Iragarki laburrak

LANA

■ **Jangelako arduraduna.** Ikaztegi-tako Herri Eskolako jangelan begiraleen ordezkapenak egiteko pertsonak behar dira. Epea: 2010eko urtarrilaren 25 arte izen-ematea eta baldintzak ikastetxean: 943 65 21 71.

Garapen ekonomikoan eta sozialean oinarrituko da bigarren Ekintza Plana

Gizartea » 2006. urtean martxan jarritako prozesuaren ondotik osatu dute eta berriki onartu du Udaltzatzen.

INIGO TERRADILLOS

Prozesu «luze eta parte-hartzaile» baten ostean, Tolosako II. Tokiko Ekintza Planaren txostena egin dago, eta baita Udaltzatzen onartua ere. Honek, bereziki, garapen ekonomiko eta soziala bultzatzea izango du oinarri, «jasangarritasun eta berrikuntza irizpideetatik abiatuta», eta beste bost lerro estrategikoetan, denera 54 programa eta 184 ekintza hartzen ditu bere gain.

2006. urtetik ari dira Tolosako Udalean «etorkizuneko garapenak markatu behar dituen ardatzak» definitzen. Tolosa 2015 egitasmoaren baitan «etorkizuneko Tolosa nola eraiki jakin asmoz» prozesu parte-hartzailea jarri zuten abian. «Ahalik eta herritar gehienek parte hartzea izan da gure asmoa, eta azkenean norbanako eta elkarleen artean 463 lagunek hartu dute parte; horrez gain, webguneko foroa bezalako erra-



463 lagun aritu dira parte-hartze prozesuan, eta bertako ekarpenekin osatu dute plana. HITZA

mintak ere zabalik izan ditugu ahalik eta aukera gehien eskaintzeko», azaltzen du Yurre Peñagarikano Tolosa 2015eko zinegotziak. 2008an egin zuten World Kafearrekin amaitu zuten diagnostikoaren prozesua, eta ordutik «udalgestiorako tresna izango den eta herriko erroka nagusiei erantzuna emango dion» Tokiko Ekintza Plana osatzeari ekin zioten. Parte-hartze prozesuan bilduta-koaz gain, Udaleko sail ezberdinen ekarpenekin idatzi zuten txostena, ondoren Udaltzatzen onartua izateko. «Berezitasun bezala, II. Ekintza Plana Legealdi planarekin

bategin da», gehitzen du Peñagarikanok.

Arlo sozial eta ekonomikoak pisu handiagoa

Lehenengo Ekintza Plana «zaharkiturik» geratu zelako ekin zioten bigarrena osatzeari, eta azken honen garapen ekonomiko eta sozialari garrantzi handiagoa ematen dio; «prozesu luzea eta parte-hartzailea izan da, hain zuzen ere herritarren ekarpenak aintzat hartu nahi genituelako, eta horregatik, errealekoak diren gaiek pisu handiagoa hartu dute Plan honetan», dio zinegotziak. Sei lerro strategi-

ko ditu, 54 programa eta 184 ekintza. «Horien arteko oreka ere zaindu nahi izan dugu, eta baita iraunkortasuna ere, lerro bakoitzak gainditu nahi dituen errokak lortzeko baliagarria baita».

Bestalde, jasangarritasuna ere aintzat hartzen du Ekintza Plana, eta izaera sozio ekonomikoa nabarmendu arren, «ingurumenak ere pisu handia du».

Beraz, Tolosak zehaztuak ditu, «herritarrek parte-hartze prozesuan adierazitakoak aintzat hartuz» etorkizunerako jarritako erroka nagusiak, eta horiek bete ahal izateko tresnak.

» DATUAK

Planaren ezaugarriak Lerro estrategikoak.

- Tokiko garapen ekonomiko eta urbanoa sustatzea, jasangarritasun eta berrikuntza irizpideetatik abiatuta.
- Bizikidetasuna, justizia soziala eta berdintasuna bultzatzea.
- Kultura, euskara, kirola eta aisia sustatu berrikuntza parametroetatik.
- Herriko baliabide naturalak babestu, kontsumo jasangarria sustatu eta hondakinen kudeaketa optimizatu.
- Klima aldaketa eta berotegi efektuko gasen isuririk arintzea.
- Kudeaketan eta herri partaide-tzan berrikuntzaren aldeko udal administrazioari bidea ematea.

Programak. Guztira 54 dira, 6 lerro estrategikoen baitan, baina gehiengo, 16 (%29) lehenengo lerroan kokaturikoak dira.

Ekintzak. Guztira 184 zehazten dituzte ekintza planean. Hemen ere protagonismo berezia du lehenengo lerroko, baina pisua dute, baita ere, bigarren, hirugarren eta bosgarren lerroko.

Bilakaera

■ Lehenengo Ekintza Planak ingurumena zuen ardatz, eta bigarrenak «parte-hartzean izandako emaitzetan oinarrituz» inguru sozial eta ekonomikoari ematen dio garrantzi handiagoa, beti ere ingurumena aintzat hartuz.

Karrozek eta konpartsek ohiko ibilbidea egingo dute Inauterietan

Aisia » Jai Batzordearen bilera egingo dute gaur, Kultur Etxean, 19:00etan; herritar orok hartu ahaliko du parte.

ERREDAKZIOA

Pasa den urteko Inauterietan ur saneamenduaren kolektorearen obrak zirela eta, karroza eta konpartsen ibilbideak aldatu beharra izan zituzten, kale batzuetatik igarotzea ezinezkoa zelako. Aurtengo Inauterietan horixe zen zalantzetako bat, hau da, iazko ibilbide bera izango ote zen aurtur ere, betikoa jarriko zuten ala karrozak eta konpartsak kalean gelditu egingo ziren. Bada, Jai Batzordeak hartutako erabakia izan da ohiko ibilbidea egitea aurtur karroza eta konpartsek, hau da, 2008. urtera arte zegoena.

Bestalde, Jai Batzordearen bilera egingo dute gaur, Kultur Etxeko 2. solairuan 19:00etatik aurrera. Aurrekoetan bezala, parte hartu nahi duen herritar orok izango du bertaratzeko aukera.

Azpiegiturak » Hiru etxebizitza geratzen dira esleitzeko; zozketa udaletxean egingo dute, 19:00etan hasita.

ERREDAKZIOA

Voith-Gorostidi esparruan esleitu gabe gelditu ziren hiru etxebizitza tasatuen zozketa egingo dute gaur. Tolosako udaletxeko batzar aretoan egingo da, 19:00etan hasita.

Pasa den urteko abenduan egin zuten Voith-Gorostidi eremuan esleitu gabe gelditu ziren etxebizitza tasatuen lehendabiziko zozketa. Guztira, 35 etxebizitza ziren zozketan jarri zituztenak, eta horiek esleitu ahal izateko 128 tolosarrek osaturiko zerrenda egin zuten. Zozketa horren aurretik Udalak adierazi zuen bigarren zozketa bat egitea ere aurreikusten zela, lehen zozketa hori egin ondoren esleitu gabeko etxebizitzak geratzen baziren. Bigarren zozketa horretan izena emateko baldintzak, ordea, desberdinak ziren. Erroldari dagokion baldintza, esaterako aldatzen zen, eta Tolosaldeko herritarrek ere aukera zuten bertan izena emateko.

Bada, iazko abenduan eginko zozketaren ostean, hiru etxebizitza tasatu geratu dira esleitu gabe, eta horiek gaur egingo den zozke-


Voith-Gorostidin esleitu gabeko etxebizitzak bigarren zozketa, gaur



Voith-Gorostidi eremuak itxura hori izango du proiektuaren arabera. HITZA

taren bidez esleitu dituzte. Gaur udaletxeko batzar aretoan egingo duten zozketarako Tolosaldeko 17 lagunek eman zuten izena. Horien baldintzak aztertu ostean, azkenean 15 lagunek osatu dute zerrenda. Onartuen eta ez onartuen zerrenda udaletxeko erregistroan dago.

Aurrekoetan bezala, zenbaki bat aterako dute, eta horren arabera osatuko dute lehentasuneko zerrenda. Datorren astean hasiko dira etxebizitzak esleitzen, beraz, egon daitezkeen ukoen arabera esleitu beharreko etxebizitzak kopurua aldatu egin daiteke.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Hastera doa VII. Berria Txapelketa etorkizuneko pilotariekin

Pilota » Euskal Herriko 24 elkartek hartuko dute parte urtetik urtera indar handiagoa hartzen ari den txapelketa honetan.

ENERITZ MAIZ

Biharemangoaio hasiera VII. Berria Txapelketa. Hamaika astetan luzatuko den txapelketa honetan, Euskal Herriko 24 elkarte onenek hartuko dute parte. Finalak, martxoaren azken asteburuan jokatu dira Hernanin.

Txapelketaren aurkezpena Andoingo Martin Ugalde kultur parkean egin zuten eta bertan izan ziren elkarte ezberdinetako ordezkariak. Hauxe gain, antolatzaileak, Joan Mari Larrarte EKTko kontseilari ordezkaria, Patxi Jauregi Gipuzkoako Pilota Federazioko presidentea, Rufino Rekalde Hernaniko ordezkaria eta Andoni Alvarez Berria egunkariordezkaria izan ziren.

Rekalde eta Alvarezek, txapelketaren nondik norakoak zehaztu zituzten. Binaka jokatu dute eta kadeteak, gazteak eta seniorrak ariko dira. Aurreko urteko sistema berabiliko dute, hau da, partida

gehien irabazten dituen elkarte pasako da hurrengo fasera. Elkartek bakoitzak, taldea sendotu ahal izateko bereak ez diren bi pilotari erabiltzeko aukera izango du.

Berriak antolatzen duen txapelketa hau urtetik urtera garrantzi handiagoa hartzen ari da eta etorkizuneko pilotarietako erakustoki bikaina da. Era berean honelako txapelketak pilotariak hazteko aproposak dira. Kanporaketa guztietan hiru mailatako partidak jokatu dira eta ikuskizuna ziurtatua egongo da.

Hiru kanporaketa

Lehen kanporaketak asteburu honetan bertan izango dira; ostiral, larunbat eta igandean. Alde batek, Gazteleku eta Txaruta, bestetik Amurrio eta Iparralde eta azken kanporaketan, Oberena eta Añorgalehiatuko dira. Hileko 22, 23 eta 24ean, Gure Kaiola eta Ilunpe, Leitzako Aurrera eta Usansolo eta Markina eta Oiarperen arteko partidak izango dira. Hileko azken asteburuan berriz, Bergara eta Erreka arteko lehia izango da eta baita, Txukunlakua eta Igozterren artekoa ere.

Kanporaketa horietan sailkatzen diren aurka jokatzeko zain



Pasa den urteko VI. Berria Txapelketako partidetak bat. ESTI EZEIZA

egongo lirateke Aldabide, Irurtzun, Adiskide, Zugarralde, Hernani, Huarte, Aurrera Saiaz eta Zazpi Iturri elkarteetako pilotariak. Bigarren kanporaketak, otsailko lau asteburuetan izango dira eta hirugarren kanporaketako partidak, aldez, martxo lehen bi asteburuetan. Hurrengo asteburuan, hau da martxoaren 19, 20 eta 21ean finalerdietara iritsitako lau elkarten arteko partidak jokatu lirateke eta final handia, martxo azken asteburuan izango da.

» VII. BERRIA TXAPELKETA

Kadete, gazte eta seniorrak

- **Urtarrilean.** Bihar hasita, lehen kanporaketak jokatu dira.
- **Otsailean.** 2. kanporaketak.
- **Martxoan.** 3. kanporaketak eta finalerdia izango dira.
- **Finala.** Martxo azken asteburuan, Hernanin.

Euskal Herriko 24 elkarte

- **Bizkaitik.** Gure Kaiola, Usansolo, Markina, Igozter eta Adiskide.

- **Iparraldetik.** Selektzioa.
- **Arabatik.** Amurrio eta Txukunlakua.
- **Gipuzkoatik.** Gazteleku, Añorga, Ilunpe, Oiarpe, Bergara eta Hernani.
- **Nafarroatik.** Txaruta, Oberena, Erreka, Aldabide, Irurtzun Zugarralde eta Huarte.
- **Eskualdekoak.** Aurrera Saiaz, Leitzako Aurrera eta Amezetako Zazpi Iturri.

Maila handia izango da 2. Mailako Binakakoan

Pilota » Eskualdetik Asegarceko Ekaitz Saralegi amezketarrak eta Aspeko Mikel Olazabal aresoarrak parte hartuko dute.

ERREDAKZIOA

Jakina da urte guztian zehar pilotariak ia ez dutela atsedetik izaten. Txapelketa bat bukatu orduko bestea ate joka izaten dute. Urte berria hastearrekin batera, binakako txapelketak hasten dira. Lehen mailako pilotarien arteko partidak hasiak daude eta bihurtik aurrera, Bigarren Mailako Binakako Txapelketa ere hasiera da.

Bigarren mailako txapelketa izan arren, lehen mailatik gero eta gertuago dagoen txapelketa da honako hau. Aspaldiko urteetako txapelketarik gogorrenaren aurrean geundeko adituen ustez. Lehen mailan guztiz lehiaz tokirik ez eta, bigarren mailan lehiaz behar izaten dute pilotariak. Bigarren



Bigarren Mailako Binakako Txapelketa Bilbon aurkeztu zuten, bertan izan ziren Saralegi eta Olazabal. HITZA

mailako pilotarien artean azken lau urteetako txapeldunak aurkitzen dira: Argote, Retege Bi, Arretxe II eta Asier Berasaluze.

Aspe eta Asegarce enpresek antolatutako txapelketa honetan enpresa bakoitzeko lau bikote lehiatuko dira. Asperen bikoteak,

Berasaluz IX - Larrinaga, Olazabal - Arruti, Aritz Lasa - Merino eta Retege Bi - Cecilio izango dira. Eta Asegarcerenak berriz, Urrutikoe-Argote - Argote, Saralegi - Eskudero, Arretxe II - Ibai Zabala eta Diaz - Apraiz dira. Txapelketa nagusiaren antzeko egitura izango du bi-

garren mailakoak ere. Enpresa bakoitzeko bikoteak bestearen aurka arituko dira bi itzuliko ligaxka batean. Enpresa bakoitzak bere ligaxka prestatu du eta partida horietatik, finalerdietara lau bikote onenak sailkatuko dira. Lehen mailako txapelketarekin duen ez-

berdintasuna finalerdietan ez dela ligaxkarik jokatu da. Kasu honetan, partida bakarreko finalerdia izango dira. Finala berriz martxoaren 27an jokatzea aurreikusten dute antolatzaileek, baina oraindik guztiz zehaztu gabe dago.

Olazabal eta Saralegi

Bigarren maila honetan, eskualdeko bi pilotariak jokatu dute elkarren aurka. Aresoarra den Mikel Olazabal gaztea eta urte askoan hor dabilen eta azken aldia lehen mailan ere jokatu ari den Ekaitz Saralegi amezketarra izango dira. Aresoarrak, Asier Arruti usurbildarra izango du lagun eta amezketararen atzelaria berriz, Iñaki Eskudero erasundarra izango da.

Lehen partida, asegarceko Saralegi eta Eskudero eta Aspeko Olazabal eta Arrutiren artekoa izango da. Partida hau bihurtik Getariako pilotalekuan jokatu dute eta gainerako bikoteen partidak, Iruñea, Eibar eta Mungia pilotalekuan izango dira.



Uzturre taldeko zenbait kide Tolosako Sakramentinoetan bitzen diren lokalean. I. GARCIA

Alkoholiko Anonimoak elkarteko Tolosako Uzturre taldeak hitzaldia antolatu du gaurko Alegiako kultur etxean. Alkoholak sortzen dituen arazoez hitz egingo dute hainbat esparrutik solasaldian.

Irten bide bila

MANOL GARCIA

Alkoholiko Anonimoak elkarte sortu zela 75 urte betetzen dira aurten eta 17 urte elkarte horren baitan Uzturre taldea sortu zela Tolosan. Hori kontuan hartuta hitzaldi irekia antolatu dute gaur Alegiako kultur etxean, 19:00etan. Bertan parte hartuko dute Alvaro Iruin psikiatrak, Alkoholiko Anonimoen elkarteko kide batek, Al-Anon alkoholikoen senideen elkarteko ordezkari batek eta Agurtzane Lopetegui Alegiako gizarte laguntzaileak.

Alegialdean Alkoholiko Anonimoen elkarteko talderik ez egotea da hitzaldia Alegian egiteko arrazoia. Alkoholak sortzen dituen arazoen berri ematea da solasaldiaren helburua. «Askok ez dute pentsatzen gaixotasuna denik», diote Uzturre taldeko kideek. «Bizi guztirako gaixotasuna da, baina gaixotasun horri aurre egiteko modua badagoela azaldu nahi dugu, guk jarraitzen dugun bidea da behintzat».

Gaixotasun bat azaltzeko «mediku bat bezalakorik ez dagoelako» gonbidatu dute Alvaro Iruin psikiatra hitzaldira. «Alkoholismoaren gaixotasuna guk sufritzen ez gain, gure senideek ere sufritzen dute eta horregatik ere parte hartuko dute beraiek osatzen duten

elkarteko ordezkari batek», diote Uzturrekoek. Horrez gain, Gizarte Zerbitzuetako langileak errealitate hori «hobetoen ezagutzen dutenetakoak» direla diote.

Hitzaldia edozeinentzako irekita dagoela zehazten dute eta arazoa duten senideak animatzen dituzte bertara joatera. Elkartetik badakite zaila izaten dela gaixotasuna duen pertsona bera horrelako ekitaldietara joatea. Horregatik animatzen dituzte senideak joatera. «Gertatu ohi da familiak gaixotasuna duena ezkutatu egiten duela. Hori egin beharrean laguntza eskatu dezatela, informatu daite-

«Alkoholismoaren gaixotasunari aurre egiteko modua dagoela azaldu nahi dugu»

zela, bai hitzaldi irekietara joanez edo horretarako dauden telefono zenbakietara deituz», azaltzen dute.

«Ez zara bakarra»

Horrelako hitzaldi ireki batera joatean alkoholarekin arazoa duzula konturatu zaitezke: «Alkoholiko batek esaten dituen gauzekin identifikatu egiten zara», diote taldekideek. «Konturatzeko zara ez zarelako arazo hori duzun bakarra».

Ezagutzera eman nahi direla diote. «Gaixotasuna duenak elkar-teari buruz entzuten badu, irakurtzen badu, jakingo du nora jo dezakeen laguntza bila». Alkoholikoak eutsi eta eutsi egiten duela diote: «Saiatzen da aldatzen, ez mozkortzen, baina iristen da memento bat lur jota ikusten dena eta orduan jakin behar du nora joan ahal den».

Alkoholismoa pentsatzen dena baina gehiago hedatuta dago. «Ja familia guztiek ezagutzen dute batenbat». Elkarteak ez ditu estatistikarik egiten, baina bertara gero eta jende gazteagoa joaten dela diote. «Egun lehenago hasten da edaten,

«Arazoekin zaudenean, edozer egiteko edan behar duzu. Eta edatean, ez zara gai ezer egiteko»

12 edo 13 urterekin».

Alkoholarekin arazoak dituen jakiteko sintomak asko direla aipatzen dituzte elkartetik. «Adibidez, oroimen hutsarteak dituzu. Ez zara gogoratzen gauza askotaz, autoa non utzi duzun esaterako. Nik aurreko egunean zer egin nuen ez nuen gogoratzen», dio kide batek. «Azkenean zure bizitzan gauza askotan hanka sartzen hasten zara, gobernaezina egiten da», dio beste batek. «Lanean ez duzu behar be-

zala lan egiten, ajea duzulako edo gorputz txarra duzulako. Lagunengatik alde egiten hasten zara, zure berdina ez dutelako edaten eta zure gorputzak eskatu egiten du, exijitu egiten du gehiago edatea». Beste kide batek gaineratzen duenez, «arazoekin zaudenean, edozer egiteko edan behar duzu. Eta behin edaten duzula, ez zara gai ezer egiteko. Hori ikaragarria da».

«Sufrimendu karga handia»

Elkartera lehen aldiz joaten direnean, «sufrimendu karga handia» eramaten dutela diote. «Gure bu-

«Edariak eragindako arazoak konpontzen hasten zara eta horrek ilusioa sortzen dizu»

ruari gezurra esan diogu, gure buruari huts egin diogu, gure familiari huts egin diogu, lagun askori huts egin diegu... Nagusiari edo dena delakoari errua botatzen badiozu ere, azkenean benetan huts egiten duena zara».

Alkoholikoak arazoa duela ikustea zaila da. «Agian alkoholarekin duzun arazoa bistakoa da zure ondokoentzat, baina zuretzat ez. Badakizu zerbait gaizki doala. Egiten dituzu probak eta zure buruari

esaten diozu gaur ez duzula edango eta bete egiten duzu. Hurrengo egunean ere ez duzu edaten, baina hirugarrenean aurretik edan ez duzun guztia edaten duzu. Eta gainera pentsatzen duzu eutsi egin diozula egoerari».

Beste sintoma bat da edozein arrazoi balio duela edateko. «Zure taldeak irabazten badu, ospatzeko, eta galtzen badu, triste zaudelako; haur bat izaten duzulako edo egun berezi bat delako...». Edateak norberarengan sortzen duen eragina da kontuan hartu beharrekoa, elkartekideek diotenez. «Ez da garrantzitsua edaten duzun kopurua, baizik edateak zuregan duen eragina. Batzuk eguneroko baso bat ardo edaten dute, baina egunen batean hori falta eta umorea guztiz aldatzen bazaio...».

Bizitza berreskuratu

Gaixotasunari aurre egiteko lehenengo pausoa arazoa duzula konturatzeko da. «Ez dago ikusi nahi ez duena baino itsu handiagorik», dio taldekide batek. Elkartera joaterakoan ezustekoa hartzen dela diote: «Hona etorri eta gero konturatzeko zara edan gabe egon zaitezkeela, ondo pasatzea duzula edan gabe. Hasieran ia ezinezkoa bezala ikusten duzu, baina elkarteak duen programa betetzen baduzu, ikusten duzu daukazun obsesio hori desagertzen joaten dela. Hori da ona, edan gabe bizitzen hasi zaitezkeela».

Bizitza berreskuratzen duzula azaltzen dute: «Gauzak egiten hasten zara eta edaten zenuenean baina hobeto egiten dituzu. Eta edateak sortarazi dizkizun arazoak konpontzen hasten zara eta horrek ilusioa sortzen duzu eta edan gabe bizitzen ikasten duzu».

Astean bi aldiz elkartzeko dira Uzturre taldekoak. Bertan bakoiak bere esperientziak azaldu eta besteek entzuten ditu. «Ni behintzat, etorri nintzenean, nire munduan nongoen eta ez nuen ez beste ezer entzuten ez ikusten», dio kide batek. «Nire arazoa bakarrik ikusten nuen. Hona etortzen zarenean entzuten ikasten duzu. Besteek entzuten diotuzenean konturatzeko zara zure antzeko arazoak dituela. Nik pentsatzen nuen niri bakarrik gertatzen zitzaidala. Baina hemen konturatzeko zara besteek ere gertatzen zaiela. Etortzen eta parte hartzen jarraitzen duzu eta familia eta lana berreskuratu ahal duzu, bizitzeko modua aldatzen duzu, pentsatzeko modua...». Elkartean «pilak kargatzen» dituztela diote. «Besteengandik asko ikasten dugu».

Alkoholiko Anonimoen elkartean ez dago betebeharririk: «Ez da ordaintzen kuotarik. Atea irekita dago, nahi duenak sartzea du eta hala nahi duenak etortzei utzi diezaioke», azaltzen dute. «Ezin diogu esan inori zer egin behar duen. Arazoa duen bati esan diezaiokegu zer egingo genukeen bera izango bagina edo haur egin duzuna eta ondo etorri zaigu. Hobeto bizitzen ahalegintzen gara».

Julian Gaiarre gunea «irisgarritasun baldintzetara» egokitu dute

Ibarra » Iaz Espainiako Gobernuak emandako diru laguntza bideratu dute kalean hainbat konponketa guztatzeko.

ERREDAKZIOA

Traba arkitektonikorik gabe, irisgarritasun baldintzetara egokitua, argiteria aldatuta, hiri-altzari berriekin, ibilgailuen bidea asfaltatuta, garai bateko ikuztegia konponduta eta saneamendu sarea hobetuarekin. Aldaketa hauek guztiak egin dituzte Julian Gaiarre kalean, Iaz Espainiako Gobernuak Udalei emandako diru laguntza kale hau txukuntzeko bideratu baitzuen Ibarra Udalak.

Udaleko arduradunek lanak egitea adostu zituztenean azaldu bezala, «berrurbanizatzeko lanetan inbertitzea» erabaki dute «lan hauek duten garrantziagatik eta ibartar askorengan ondorio misedegarriak izango dituelako».

Ibarra alkateak, Txelo Romeok, argitzen duenez, «aspaldi» zuten buruan zonaldea berritzea, baina inbertsio handia suposatzen zuten eta Udalak ezin zion honi aurre egin.



Baranda eta eskailera berriak, lurra konponduta... dira Julian Gaiarren egindako aldaketak, besteak beste. N. LATABURU

Beste hainbat guneri lehentasuna ematea erabaki zuten orduan: «San Inazio eta Emeterio Arrese zonaldeak berritu genituen, azpiegitura aldetik garrantzitsuagoa zelako une horretan eta erdiguneko auzoak direlako». Bi zonalde hauek eraberritu ziren, heldu eta haur parkea eta egun haurtzaindegia den espazioa eraikiz, besteak beste.

Espainiako diru laguntzarik jaso ez balitz «bi epetan egingo genuke Julian Gaiarre guneko obra». Haa-

rik, diru laguntza garrantzitsu honen ahalbidetu du «guztia obra bakanrean egin ahal izatea».

Eraberritze lanen emaitzarekin «gustura» geratu dira udal arduradunak. Hilabeteetako lana izan da, «700.000 euro inguruko aurrekontua izan da horretarako». Bizilagun batzuk bere iritzia ere eman diotela azaldu du Romeok eta dirudienek aldaketekin «gustura» daude. «Aspaldi eskatzen zuten zonalde honetan aldaketa bat, normala da gustura egotea».

«Lanei esker gune honetako auzokideen bizi-kalitatea nabarmen hobetzea lortuko» dela zehaztu du Romeok; «traba arkitektonikoak ezabatu dira», besteak beste.

Halaber, argiteria aldatu dute, farola berriak jarri dituztelarik. Hiri-altzari berriak ere ikus daitezke orain. Bestalde, saneamendua sarea ere hobetu dute. Eskailera berriak, baranda berriak eta igo-gailuak daude egun «auzoa nahiko aldatuta delako»; lurra ere berritu dute.

Laburrak

Ezohiko bilkura egingo du gaur Udaltzatza

ANOETA • Udal Plenoaren ezohiko bilkura egingo dute gaur, 19:30etik aurrera. Bertan hainbat puntu jorratuko dituzte. Ohi bezala, aurreko ohiko bilkuraren akta onartuko dute, abenduaren 3koa, hain zuzen. Kreditu aldaketarako espedienteak ere onartuko dute. Anoetako auditorioaren behin-behineko harrera eta obra amaierako ziurtagiria onesteko proposamena aurkeztuko dute eta Gipuzkoako eta Donostia Kuxaren Gobernu-Organon parte hartzeko ordezkaria izendatuko dute.

KZguneko tutorearen bisita izango da bihar

IBARRA • Ostiralero bezala, bihar ere KZguneko tutoreak bisita egingo du KZgunera (Ibai-Gain, 6 behea). 09:00etatik 13:00etara bertan. Hilaren 22an eta 29an ere gerturatuko da ordutegi berdinean, 09:00etatik 13:00etara, hain zuzen ere.

Mendi federatu txartela lortzeko aukera, zabalik

TOLOSA • Mendi federatu txartela egin daiteke Alpino Uzturre elkarrean astelehen eta asteazkenetan 19:30etik 20:30era edo alpinouzturre@hotmail.com helbidean.

Saharara bidaltzeko janaria biltzen ari dira hainbat herritan

Elkartasuna » Ikaztegieta eta Elduainen, esaterako, martxan dute 'Piztu Itxaropena' kanpaina; diruz ere lagundu daiteke.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Sahararekin elkarrekin urtero bideratu ohi duen Saharara produktuak bidaltzeko kanpaina abiarazi dute, *Piztu Itxaropena* lelopean.

Ikaztegieta eta Elduaingo

udalek ere bat egin dute ekimenarekin eta hasi dira euren biztanle artean produktuak eramateko deialdia eginez. Jasoko diren produktuak honako hauek izango dira: arroza, lekaleak, pasta, azukrea, atuna, konpresak eta sardinak oliotan.

Aurtengoan, gainera, eskola berri bat eraikitzeko proiektua martxan jarri dute, eta horretarako janari bilketarekin batera eskola materiala ere jasoko dute: koadernoak, arkatzak, ezeztekoak, txorroskiloak...

Ikaztegieta hilaren 29ra arte, ostirala, bilduko dute aipatu materiala herri eskolan, kiroldegian edo udaletxean bertan.

Elduainen, berriz, udaletxean bertara eraman beharko dituzte produktuak hilabete amaierara arte.

Janaria eta eskolako materialaz gain, norbaitek laguntza ekonomiko eman nahi balu, kontu korronte zenbaki bat ere zabaldu dute horretarako. Hau da zenbakia: 3035 0080 94 0800054177 (Euskadiko Kutxa).

Xabi Fernandez eta Iker Martinez zoriondu ditu Udaleko kirol sailak

Ibarra » Ibartarrak lortutako 49er mailako Munduko Txapelketan lortutako garaipena nabarmendu du kirol sailak.

ERREDAKZIOA

Ibarra Udaleko kirol sailak Xabi Fernandezek lortu duen garaipenaren garrantzia dela-eta «berezi ki zoriondu» nahi izan du ibarra-

rra. Ibarra 49er mailako Munduko Txapelketan garaipena lortu du Iker Martinez donostiarrekin batera. Bela munduan, goi mailan kokatu dira beste behin ere Fernandez eta Martinez.

Gogoratu behar da Fernandezek eta Martinezek pasa den igandean Bahametako uretan lortu zuten munduko txapelkun izatea, astebeteko lehiaren ondoren. Orain Bartzelonako World Race delakoan hartuko dute parte.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Olanoren askatasuna eskatzeko bihar manifestazioa egingo dute Tolosan

Lizartza » Ezker abertzaleak deitu duen eskualdeko martxa, Triangulotik 19:30ean abiatuko da.

ASIER IMAZ

Peio Olanoren atxiloketa ostean, Lizartzan, manifestazioak edo batzar informatiboak egin dituzte iluntzero. Atzokoan, Tolosaldeko Ezker Abertzaleak prentsaurrekoa eskaini zuen herrian bertan.

«Peio, hirekin gaudelo»

Lehenik eta behin, Olanori, bere sendiari eta bere lagunei elkartzesuna azaldu zien Ezker Abertzaleak: «Lizartzak, Tolosaldeak, Euskal Herriak, ez ditu Otaola, Rubalcaba, Ares edo horrelakoak behar, ezta nahi ere. Euskal Herriak, Tolosaldeak eta Lizartzak herritarren eguneroko lana behar du. Peio bezalako kideak eta herrita-



Tolosaldeko Ezker Abertzaleak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo Lizartzako plazan. A. IMAZ

rrak nahi ditu. Horregatik, zuentzat gure babes osoa».

Ondoren, euren aurkako «ehiza» eta «tortura» salatu zuten: «Oraingoan Peio Olanoren izan da, Guardia Zibila tarteko, atxilotua eta bahitua. Bost egun luze eta ilun pasa ditu Peio Olanoren lizartzarrak Guardia Zibilaren esku; inkomu-

nikazioaren inpunitateak izan du bere esku, egun luze hauetan. Peio berak epailearen aurrean salatu duen bezala, bortizki torturatua izan da».

«Eztabaida pitzatu nahian»

Atxiloketa honen eta asteburuan zehar izan diren polizia operazio-

en helburua zein den, «argi eta garbi» omen dauka Ezker Abertzaleak: «Abian dagoen eztabaida prozesua pitzatu nahi dute. Argi dugu, irekitzen ari garen bidean horrelako erasoek ez dutela etenik izango. Horregatik, gure helburua prozesu demokratikoa eraikitzen eta osatzen jarraitzea da. Estatuak, ge-

zurren eta intoxikazioen bidez ezin izango baitute herri honek hainbeste desio duen eskubide demokratikoen berreskuratzea eragotziko. Herri honetako kide konprometuei esker lortuko baitugu, prozesu demokratikoa bururaino ematea. Errepresiorik gogorrenari ere kalean eta egunerokoan lana eginez erantzungo baitiogu».

Azkenik, «arrazoi guzti hauengatik», eskualdeko manifestazioa deitu zuten Lizartzatik. Martxa bihar, hilak 15, 19:30ean abiatuko da Tolosako Triangulotik.

«Muntaia izugarria»

Lizartzako herritarren izenean ere, idatzi bat irakurri zuten prentsaurrekoan. Bertan Olanori babes azaldu zioten: «Peio gure herriko gizon langile bat da, beti herriaren aldeko ekimenetan parte hartu duena. Bere delitu bakarra, herria hiltzen ez uztea izan delakoan gaudela».

«Olano espetxeratu arte ez dute atsedetik hartu. Edozer egiteko gai direnez, informazio faltsuari helduz, muntaia izugarri bat egin dute; akusazio faltsu bat erabiliz espetxeratu dute. Hau guztia ozen salatzen dugu eta Peio aska dezatela exijitzen dugu».

«Bost egunetan ez du lorik egin, jan ere ez, nekatuta eta argal zegoen, baina buruz argi»

IKER SARRIEGI » Peio Olanoren abokatua

Lizartza » Bost egun inkomunikaturik egon ondoren Peio Olanok «tortura bortitzak» jasan izana salatu zuen.

Peio Olanoren abokatua Iker Sarriegi da. Lizartzarrekin egon ondoren, Madriletik Euskal Herrira autoz zetorrela, berarekin hitz egiteko aukera eduki genuen atzokoan. Atxilotu ondorengo egunetan, Guardia Zibila «bortizki torturatuta» zuela salatu du lizartzarrak.

Noiz altxa zioten inkomunikazioa?

Asteartean, epailearen aurretik pasa ondoren, Espainiako Auzitegi Nazionalako ziegatan, lokutorio antzeko batzuk daude, kristalarekin eta... abokatuak presoarekin egoteko aukera dauka bertan eta orduan egon nintzen berarekin; 5-10 minutuz hitz egin genuen.

Nola aurkitu zenuen?

Bost egunetan ez du lorik egin, jan ere ez, orduan pixka bat nekatuta eta argalduta zegoen; 6-7 kilo galdu ditu. Bestalde, buruz oso ondo aurkitzen zen, argi.

Gaur-atzo, berriz ikusteko aukera eduki duzu?

Soto del Realen daukate eta ordu t'erdiz egon gara. Burua oso argi dauka, badaki non dagoen, koka-



GARI GARAIALDE/ARGAZKI PRESS

tuta dago eta gauza zentzudunak esaten ditu; oso lasai, gauzak pentsatuz hitz egiten du.

Sendiarekin egoteko aukera noiz edukiko du?

Lehenengo bisita igandean edukiko du. Gaur-atzo- bere neskalagunarekin telefonoz hitz egiteko aukera izan du, nahiz eta bi minutu bakarrik izan diren.

Nola gogoratzen du atxiloketa unea?

Ezzen oso bortitza izan, hau da, lurrrera bota eta horrelakorik ez zen egon. Autoan sartu eta Donostiara eramane zuten, epaitegiko medikuaren aurretik pasatzera. Ondoren, berriz, Intxaurrendora eramane zuten, horrela uste dugu behintzat. Han autoz aldatu eta Madrilera eramane zuten.

Nolako bidaia izan zen?

Zaplazteko batzuk, ukabilkada

pare bat, burua pixka bat behe-rantz makurtuta, eskuak aurrean esposatuta eta biderketak etengabe egiten, burua nekatzeko edo. Galdeketa ez zioten egin bidetan. Autoan guztira bost ziren eta bera atzean joan zen, erdian.

Zer gertatu zen behin Madrilera iritsi zirenean?

Ziegatan sartu zuten. Bost egun horietan ez da kokatzen; orduekin eta egunekin galdu egiten da. Hori bai, lehen bi egunetan ia egun guztia goian eduki zuten, galdeketa egiten zizkieten, hain zuzen. Ziegatik harantz igotzen zuten eta bertan 2-3 orduko itaunketak egiten zizkieten. Bost egunetan 30 galdeketa egin dizkiote.

Galdeketa guztiak 2-3 ordukoak al ziren?

Hasieran bai. Gero egunak pasa ahala aldatzen joan da.

Galdeketa horietan, nolako tratu jaso zuen?

Bereziki poltsarena esaten zuten. Lurrean manta batean bilduta etzaten zuten, eskuak atzean ahalik eta estuen esposatuta. Gero goruntz eramane zizkiotela esaten zuten. Lurrean zegoela bi edo hiru jartzen zitzaizkion gainean eta beste batek poltsa jartzen zion buruan. Konortetik ez zuen galdu baina ia-ia galdu arte horrela edukitzen zuten.

Hori bost egunetan egin diotelan esan al du?

Ez, lehen bi egunetan. Gero eserita zegoela jartzen zioten poltsa. Horretaz gain, egun guztian zehar flexioak, garraxiak, zutik egon beharra... pairatu ditu. Elektrodoekin eta bainerarekin ere mehatxatu dute eta baita familiarekin ere; haurra egoera horretan nola utzi daitekeen... Kolpeak ere eman dizkiote.

Bost egun horietan Lizartzara ere ekarri omen zuten?

Bai. Zulo batzuen inguruan deklaratu arazi zioten. Orduan, helikopteroz zulo horiek ikustera eramane zuten. Laugarren edo bostgarren egunetan izan zen hori. Lizartzan garaje bat ikusten egon ziren, giltzak Peiok zituelako. Hor ere ez zegoen ezer eta berrituz autoz itzuli ziren Madrilera.

Deklaratu arazi esan duzu.

Bi deklarazio prestatu zizkieten.

Gero hortikatera dute guztia; misilarena... Deklarazioa behartuta prestatzen diote, galdera eta ia erantzun guztiakin. Horrelako bi deklarazio egin zituen.

Erantzunak ere bai?

Hori galdeketatik prestatzen dute. Gero, polizia egoitzan, kanpotik ofiziozko abokatu bat etortzen da eta ofizialtasuna ematen diote. Hori da polizia deklarazioa. Instruktoarek galderak egiten dizkizu eta zuk bai esatean baliagarritasuna ematen diozu.

Eta ondoren epailearen aurretik pasatzen zara.

Hori da. Kasu honetan, epaileak baliagarritasuna eman dio komisaldetan egindako deklarazio polizialari. Hala ere, gerora ikusi behar harko da. Batzuetan konfirmatzeko beste elementuak ere kontutan hartzen dituzte, hau da, deklarazio polizialak bakarrik ez duela balio esaten dute, beste elementu batzuk egon behar dira: misilak, zulo horietan lehergailuak egotea... kasu honetan datu horiek ez daude. Gero, epailearen aurrean Peiok deklarazio poliziala behartuta izan zela esaten zuten.

Atxilotu zutenean, goizez gauza bat esan zuten, arratsaldez beste eta orain berriz...

Autoak Irati Mujikaren etxean aurkitutako karta bat aipatzen du, bere aitak bidalitakoa. Hortikatera omen dute, baina ez dakigu ezer ere.

Lizartzan elkartasun ekimen ugari egin dituzte azken egunetan. Zerbait esan al diozu horren inguruan?

Atzo-herenegun-, herriaren inguruan berak galdetu zidan eta eguneroko manifestazioak eta elkarretaratzeak egiten ari direla esan nion.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Dedialdia

■ **Tolosa.** Inauterietako haur danborradan kosaka bezala atera nahi dutenek etzi eta hilaren 23 eta 30ean musika eskolan egingo diren entsegetara azaldu behar dute, 15:30etik 16:30era bitartean. Apeadero sarrera erabiltzeko eskatu dute antolatzaileek.
■ **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako informazioa eta izen-ematea otsailaren 8a arte, www.tolosaldeko.org/inauteriak helbide elektronikoan.

Ipuin kontaketa

■ **Tolosa.** Ipuin kontaketa Haur Liburutegian gaur 18:00etan.

Musika

■ **Tolosa.** Capsularen kontzertua Bonberenean bihar 22:30ean.
■ **Tolosa.** Amaia Zubiriaren kontzertua Fronton kafetegian bihar 23:00etan.
■ **Tolosa.** Ama sayren kontzertua Bonberenean 22:30ean etzi.
■ **Alegia.** Txintxarri Kultur Elkartearen bazkide batzarra etzi, hilak 16, 17:30ean. Gaiak: urteko kontuak aztertzea eta onartu eta Zuzendaritza Batzorde berriko kideak onartu

Zinema

■ **Tolosa.** Andrej Wajda zuzendariaren *Katyn* filma gaur Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-klubean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 06 48.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HIZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



6.000 euroko saria, bidaiatzeko

TOLOSA ■ Tolosako 170 bat saltoki biltzen dituen Alde Zaharra Dendak elkarteak 6.000 euro banatu zituen atzo, Eguberrietako zozketaren saria, hain zuzen. Izan ere, elkarteak Gabonetako kanpaina berezia jarri zuen martxan erosleak erakartzeko helburuz. Aroztegieta kaleko Arozena

Harategian izan zuten sari ematea eta irabazlea, Juani Hosteins Carrion, oso kontentu zegoela adierazi zuen. Saria Itxaropena Elordi Alde Zaharra Dendak elkarteko lehendakariaren eskutik jaso zuen. Dirua bidaiatzeko erabiliko duela ere aurreratu zuen irabazleak. E. EZBZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behe • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • N A : _____

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P.K: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: